EZ DIEZAZULA AMORRURIK EMAN ARDURATSU IZATEAK



Lagun egiteko animalien Nafarroako erregistroa (RIACNA) eguneratzeko kanpaina.

Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko 19/2019 Foru Legeak eta haren erregelamendu-garapenak (94/2022 Foru dekretua) ezarri dute

Nafarroan bizi den txakur baten jabeak honako betebehar hauek dituela, besteak beste: >>>

Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Laguntzailea:

Colegio oficial de Veterinarios de Navarra

NAVARRA : NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

1

Ongi identifikatua eduki behar du.
Hau da:

- Mikrotxip baten bidez identifikatu behar du.
- Lagun Egiteko Animalien Identifikaziorako Nafarroako Erregistroan inskribatu behar du.
- Identifikazio Pasaporte bat izan behar du.

2

Urtero amorruaren aurka txertatu behar du.

3

Urtero, albaitaritza-kontrola egin behar dio bere osasuna aztertzeko.

Jarduketa horiek albaitari profesional batek egin behar ditu eta, jabea zaren aldetik, zure ardura da horiek oro egiten direla ziurtatzea.



>>>

4

Lagun egiteko Animalien Identifikaziorako Erregistroan jasoak dauden animaliaren datuak eguneratuak izan behar ditu. Hori dela eta, honakoa jakinarazi behar duzu:



- Egoitza beste autonomia-erkidego edo herrialde batera aldatu izana.
- Animaliaren jabe aldaketa.
- Baja, animalia hil delako.
- Animalia galdu izana.
- Animaliaren datu erregistratuen aldaketak, hala nola arriskutsua izan daitekeen animaliatzat jotzea, kokaleku aldaketa, arraza aldaketa, etab.
- Jabearen datuen aldaketa, hala nola helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia, etab.

Albaitari profesional batengana jo behar duzu jakinarazpen horiek egiteko. Jabea zaren aldetik, zure ardura da horiek oro egiten direla ziurtatzea.

Betebehar horiek betetzea funtsezkoa da:

- zure txakurraren, beste animalien eta pertsonen osasuna babesteko.
- galtzen bada, huraxe berreskuratzeko.
- haren ongizatea eta edukitze arduratsua bermatzeko.

Betebehar horiek ez betetzea lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko 19/2019 Foru Legea urratzea da.